

“2020ko HONDARRIBIKO GABONETAKO X. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA” OINARRIAK

Hondarribiko Udaleko Turismo eta Merkataritza Sailak “2020ko HONDARRIBIKO GABONETAKO X. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA” antolatu du, gure merkataritza hiriaren bizitzan integratzeko eta dekorazio hoberena duen saltokia saritzeko.

DEIALDIA ETA IZENEMATEA

Lehena: Maila bakarra “2020ko Gabonetako Erakusleihoa”.

Bigarrena: Lehiaketan Hondarribian publikoari irekiak diren saltoki guztiek har dezakete parte, baldin eta erakusleihoa badute.

Hirugarrena: Izenemate orria beteta aurkeztu beharko da Udaletxeko Biztanleen Arreta Zerbitzu (BAZ) bulegoan (astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara), edo Hondarribiko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ondorengo helbidean: <http://www.hondarribia.eus/eu/izapide-udal-erregistroa>

Izenematea doakoa da eta onarpen epea abenduaren 2an irekiko da eta abenduaren 18an itxiko da. Ezarritako epetik kanpo bidalitako izenemate orri guztiak gutxietsita geldituko dira.

Laugarrena: Lehiaketan parte hartzen dutela egiaztatzeko ezaugarri bat emango zaie izena emandako saltokiei, eta erakusleihoaren toki ikusgai batean jarri beharko dute. Akreditazio hau ez badago, partehartzailea lehiaketatik kanpo geratuko da.

LEHIAKETAREN GARAPENA

Bostgarrena: Garatutako gaiak gabonetako giroarekin izango du zerikusia, eta askatasun osoa izango du teknika eta estiloari dagokionez.

Seigarrena: Erakusleihok 2020ko abenduaren 19tik 2021eko urtarrilaren 7ra egon beharko dute lehiaketarako aurkeztutako dekorazioarekin, biak barne, eta establezimenduek hala nahi badute aurreko eta ondorengo egunetan ere bai.

EPAIMAHAIA ETA KALIFIKAZIOIRIZPIDEA

Zazpigarrena: Erakundeak epaimahai kideak izendatuko ditu, eta gaiari buruzko gaitasuna izango dute.

Zortzigarrena: Epaimahaiak ebaluatzeko garaian ondoko ezaugarriak hartuko ditu kontuan:

- Diseinua
- Sormena
- Irudi komertziala eta produktuaren aurkezpena

Bederatzigarrena: Epaimahaiak balorazioa egiteko establezimenduak bisitatuko ditu, eta puntuaketa 1etik 5era bitartekoa izango da. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta 2020ko abenduaren 20an jakinaraziko da emaitza.

Hamarrena: Lehiaketaren parte-hartzaileek ezin izango dute epaimahaian parte hartu eta berariaz onartu beharko dituzte oinarriak.

SARIA

Hamaikagarrena: Sariak, honako hauek izango dira:

- 1 saria: 450,00 €
- 2 saria: 300,00 €
- 3 saria: 200,00 €

Sariak jaso ahal izateko, onuradunak kontu korronteko jabea dela dioen agiria ekarri beharko da banketxearen zigiluarekin. Sari hauei dagokien PEFZ kenduko zaie.

Hamabigarrena: Sariak ezin izango dira partekatu bi establezimendu edo gehiagoren artean.

ONARPENA

Hamahirugarrena: “HONDARRIBIKO 2020ko GABONETAKO X. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAN” parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

HARREMANETAN JARTZEKO

Informazio gehiago Udaleko Web orrian www.hondarribia.eus eta Udaletxeko Biztanleen Arreta Zerbitzu (BAZ) bulegoan.

Turismo eta Merkataritza zinegotzia,

